



## ERRETERIA UDALA

Giza Baliabideak / Recursos Humanos

**Espediente zk./N<sup>o</sup>** expediente: 20221POL0001

**Gaia/Asunto:** Lan jazarpen inguruko protokoloen onarpena / Aprobación de protocolos sobre acoso en el trabajo.

**Eskatzailea/Solicitante:** ERRETERIAKO UDALA

**NAN(IFK)/DNI(NIF):** P2007200E

**Kokalekua/Emplazamiento:** ERRETERIA

### DEKRETUA

#### AURREKARIAK

2021eko abenduan, *“Errenteriako Udalean jazarpenaren eta beste arrisku psikosozial batzuen arloko gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko aurreko jarduera-protokoloa”* eguneratzeko helburuarekin, dokumentu berri bat idazten hasi zen, Prebentzio Zerbitzuaren, Berdintasun Sailaren eta Errenteriako Udaleko Giza Baliabideen Sailaren lankidetzarekin.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 14.h) artikulua, langile publiko orori aitortzen dio lanean intimitatea, sexu-orientazioa, norberaren irudia eta duintasuna errespetatzeko eskubidea. Bereziki sexu-jazarpenaren eta sexuan, moralean eta lanean oinarritutako jazarpenaren aurrean.

Bestalde, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak ezartzen duenez, lan-erakunde guztiek, baita administrazio publikoak ere, langileen lan-baldintzen hobekuntza sustatu behar dute, eta segurtasunaren eta osasunaren babes-maila handitu behar dute, ez bakarrik kalte fisikoa eragin dezaketen arriskuen prebentzioa eta babesza zainduz, baita langileen osasun psikikoa kaltetu dezaketen arriskuen aurrean ere

### DECRETO

#### ANTECEDENTES

En diciembre de 2021, con el objetivo de actualizar el anterior *“Protocolo de actuación para la prevención y solución de conflictos en materia de acoso y otros riesgos psicosociales en el Ayuntamiento de Errenteria”*, se comenzó a redactar un nuevo documento con la colaboración del Servicio de Prevención y Riesgos Laborales, el departamento de Igualdad y el departamento de Recursos Humanos del ayuntamiento de Errenteria.

El artículo 14.h) del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público reconoce a toda persona empleada pública el derecho al respeto de su intimidad, orientación sexual, propia imagen y dignidad en el trabajo. Especialmente frente al acoso sexual y por razón de sexo, moral y laboral.

Por su parte, la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales establece que todas las organizaciones laborales, incluida la administración pública, deben promover la mejora de las condiciones de trabajo del personal empleado y aumentar el nivel de protección de la seguridad y la salud, no solo velando por la prevención y protección frente a riesgos que puedan ocasionar menoscabo o daño físico, sino también frente a aquellos que puedan causar deterioro en la salud psíquica de las personas empleadas.



## ERRETERIA UDALA

Giza Baliabideak / Recursos Humanos

Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren arloko legeriari dagokionez, legeak jazarpen sexistari aurre egiteko eskatzen die administrazio publikoei. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 4/2005 Legeak 43. artikuluan ezartzen duenez, EAEko administrazio publikoek ofizioz jardungo dute jazarpen sexistaren salaketan aurrean. Era berean, lanean jazarpen sexista prebenitzeko eta desagerrarazteko politikak jarri behar dituzte abian beren langileentzat. Politika horiek, besteak beste, jarduketa-protokoloak egitea eta aplikatzea aurreikusitako behar dute.

Halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, 48. artikuluan, lanean sexu-jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurri espezifikoak ezartzen ditu.

Era berean, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak 13. artikuluan ezartzen duenez, administrazio publikoek lan-baldintzak sustatu beharko dituzte laneko sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako jokabideak saihesteko, bereziki azpimarratuz sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, eremu digitalean egindakoak barne. Era berean, prozedura edo protokolo espezifikoak ezarri beharko dituzte horrelako jokabideen biktimak prebenitzeko, garaiz detektatzeko, salatze eta haiei aholku emateko.

Araudi hori kontuan hartuta, eta jazarpena hainbat modutara eta hainbat eragilek egin dezaketela kontuan hartuta, bi protokolo sortzea erabaki zen: *“Errenteriako Udalean Barnejazarpen alorreko gatazkak eta bestelako arrisku psikosozialak aurreikusi eta konpontzeko jarduketa-protokoloa”* eta *“Erabiltzaileen jokabide desagokien aurrean Errenteriako Udaleko langileek jarduteko protokoloa”*. Aurreko jazarpen eremuko protokoloa ordezkatzera etorriko dira,

En cuanto a la legislación en materia de igualdad de oportunidades de mujeres y hombres, esta insta a las administraciones públicas a actuar frente al acoso sexista. Así, la Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, en su artículo 43 establece que *“Las administraciones públicas vascas actuarán de oficio ante denuncias de acoso sexista. Así mismo, han de poner en marcha políticas dirigidas a su personal para prevenir y erradicar el acoso sexista en el trabajo. Dichas políticas, entre otras medidas, deben prever la elaboración y aplicación de protocolos de actuación”*.

También, la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, señala en su artículo 48 las medidas específicas para prevenir el acoso sexual y/o por razón de sexo en el trabajo.

Asimismo, la Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, de garantía integral de la libertad sexual, establece en su artículo 13 que las administraciones públicas *“deberán promover condiciones de trabajo que eviten las conductas que atenten contra la libertad sexual y la integridad moral en el trabajo, incidiendo especialmente en el acoso sexual y el acoso por razón de sexo, incluidos los cometidos en el ámbito digital. Asimismo, deberán arbitrar procedimientos o protocolos específicos para su prevención, detección temprana, denuncia y asesoramiento a quienes hayan sido víctimas de estas conductas”*.

Teniendo en cuenta esta normativa y que el acoso puede darse de diferentes formas y por distintos agentes, se han creado dos protocolos: el *“Protocolo de actuación para la prevención y solución de conflictos en materia de acoso interno y otros riesgos psicosociales en el Ayuntamiento de Errenteria”*, y el *“Protocolo de actuación del personal empleado del Ayuntamiento de Errenteria ante conductas inadecuadas de personas usuarias”*, en



## ERRETERIA UDALA

Giza Baliabideak / Recursos Humanos

barne jazarpena mugatzen zelako, eta 2008. urtekoa izanik bere eguneraketa beharrezkoa zen.

Modalitate horietako bakoitzak bestearikiko independentea den jarduteko eta salatzeko prozedura bat duenez, beharrezkoa zen horietako bakoitzak bere prebentzio- eta jarduera-protokoloa izatea.

Aipatzekoa da Erabiltzaileen jokabide desegokien aurrean Errenteriako Udaleko langileek jarduteko protokoloan prebentzio- eta salaketa-prozedura orokor bat sortzen dela, alde batera utzi gabe zerbitzu jakin batzuek (besteak beste, gizarte-zerbitzuek eta udaltzaingoen) gida osagarriak izan ditzaketela beren eguneroko errealitateara hobeto egokitzeko.

Udaleko langile guztiei jakinaraziko zaizkie, gaiari buruzko prestakuntza-saioen bidez.

Bi protokolo hauek Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeak tratatu zituen 2022ko irailaren 15ean egindako bileran, eta aldeko irizpena jaso zuten.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

- \* Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua (EPOETB).
- \* 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruz.
- \* 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarakoa.

sustitución del anterior protocolo de actuación en la materia dado que este únicamente abordaba en acoso en su vertiente interna, y además siendo del año 2008 resultaba necesario actualizarlo.

Cada una de estas modalidades tiene un procedimiento de actuación y de denuncia independiente del otro, por lo que era necesario que cada una de ellas tuviera su propio protocolo de prevención y actuación.

Cabe mencionar que en el "*Protocolo de actuación del personal empleado del Ayuntamiento de Errenteria ante conductas inadecuadas de personas usuarias*" se crea un procedimiento general de prevención y denuncia, sin perjuicio de que determinados servicios (como los Servicios Sociales o la Policía Local, entre otros), puedan aplicar guías complementarias que se ajusten mejor a su realidad diaria.

Se darán a conocer a todas las personas empleadas del ayuntamiento a través de sesiones de formación en la materia.

Estos dos protocolos han sido tratados por el Comité de Seguridad y Salud Laboral en la reunión celebrada el 15 de septiembre de 2022, recibiendo su dictamen favorable.

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

- \* Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre por el que aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP)
- \* Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales.
- \* Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.



## ERRETERIA UDALA

Giza Baliabideak / Recursos Humanos

\* Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

\* 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Erkideari buruzkoa.

\* 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa.

\* Berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua.

\* 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa.

Giza Baliabideetako teknikariak, Laneko Prebentzio eta Arriskuen Zerbitzuko teknikariak eta berdintasun-teknikariak txostena egin dute 2022ko urriaren 14an.

Horregatik guztiagatik, Alkatetza honek, Giza Baliabideetako arduradunak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin, esleituta dituen eskumenak baliatuz.

Honen bidez,

### EBATZI DUT

**LEHENENGOA.-** ONARTZEA *“Errenteriako Udalean Barne-jazarpen alorreko gatazkak eta bestelako arrisku psikosozialak aurreikusi eta konpontzeko jarduketaren protokoloa”*, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak, Berdintasun Sailak eta Giza Baliabideen Sailak idatzitakoa, eta 1. eranskin moduan jasotzen dena.

\* Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, de igualdad entre hombres y mujeres.

\* Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

\* Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local.

\* Real Decreto 901/2020, de 13 de octubre, por el que se regulan los planes de igualdad y su registro.

\* Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, de garantía integral de la libertad sexual.

La Técnica de Recursos Humanos, la Técnica del Servicio de Prevención y Riesgos Laborales y la Técnica de Igualdad, han emitido informe con fecha 14 de octubre de 2022.

Por todo ello, esta Alcaldía, con la conformidad dada por La responsable de Recursos Humanos a la propuesta de decreto que consta en el expediente, en uso de las atribuciones que tiene conferidas.

Por la presente,

### RESUELVO

**PRIMERO.-** APROBAR el *“Protocolo de actuación para la prevención y solución de conflictos en materia de acoso interno y otros riesgos psicosociales en el Ayuntamiento de Errenteria”*, elaborado por el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales, el Departamento de Igualdad y el Departamento de RRHH, y que se adjunta como anexo 1.



## ERRETERIA UDALA

Giza Baliabideak / Recursos Humanos

**BIGARRENA.-** ONARTZEA *“Erabiltzaileen jokabide desagokien aurrean Errenteriako Udaleko langileek jarduteko protokoloa”*, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak, Berdintasun Sailak eta Giza Baliabideen Sailak idatzitakoa, eta 2. eranskin moduan jasotzen dena.

**HIRUGARRENA.-** Indarrik gabe uztea 2008. urtean onartutako Errenteriako Udalean jazarpen alorreko gatazkak eta bestelako arrisku psikosozialak aurreikusi eta konpontzeko jarduera-protokoloa.

**LAUGARRENA.-** Ebazpen honen berri ematea udaletxeko langile guztiei, Segurtasun eta Lan Osasun Batzordeari, eta udaleko intranetean zintzilikatzea.

**SEGUNDO.-** APROBAR el *“Protocolo de actuación del personal empleado del Ayuntamiento de Errenteria ante conductas inadecuadas de personas usuarias”*, elaborado por el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales, el Departamento de Igualdad y el Departamento de RRHH, y que se adjunta como anexo 2.

**TERCERO.-** Dejar sin efecto el anterior Protocolo de actuación para la prevención y solución de conflictos en materia de acoso y otros riesgos psicosociales en el Ayuntamiento de Errenteria, aprobado en el año 2008.

**CUARTO.-** Comunicar la presente resolución así como los protocolos aprobados a todas las personas empleadas municipales, al Comité de Seguridad y Salud Laboral y publicar el mismo en la Intranet Municipal.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Errenteria, en la fecha de la firma

Alkatea / Alcaldesa

Aizpea Otaegi Mitxelena



## 1. ERANSKINA

## ANEXO 1

### Errenteriako Udalean Barne-jazarpen alorreko gatazkak eta bestelako arrisku psikosozialak aurreikusi eta konpontzeko jarduketa-protokoloa.

#### **Sarrera**

Errenteriako Udalak udal langileen osasuna eta ongizatea ikuspegi globaletik ulertzen ditu, hau da, udal langileak arrisku guztietatik babestu behar direla uste du. Eta bereziki babestu behar direla arrisku psikosozialetatik, hots, beraien oreka psikologikoa eta soziala nahasi dezaketen jarduera eta jokaeretatik.

Osasunari erasateaz gain, edozein modalitateko jazarpenak, estresa eragiten duten jokabideek, edo pertsonaren duintasunaren eta osotasunaren aurkako beste edozein erasok, urratu egiten dituzte bizikidetzaren oinarriak eta herritarren oinarriko eskubideak, eta, beraz, pertsonen aniztasuna errespetatuko dituen eta berdintasunezko harremanak bultzatuko dituen kultura instituzionalak oinarri dituen funtsezko balioak urratzen ditu.

Laneko jazarpen- edo stres-egoerak ekar ditzaketen portaerak saihesteko, hiru tresna erabili behar dira:

1. Prebentzioa, eta horretarako jokabide-kode komunak ezartzea.
2. Gatazkaren eta kexaren aurrean jarduteko prozedura adostuak onartzea.
3. Biktimei eta lan-inguruneari eragindako kaltea erreparatzea.

Udaleko langile guztiek ezagutu behar dituzte jarduteko kode eta protokolo horiek, hori baita eraginkorrek izateko modu bakarra.

Araudi honen xedea da balio eta jokabide komunak ezartzea, eta, hala, komunikazio sarrira eta irekia zein gatazkak konpontzeko praktikak dituzten lan-taldeak osatzea. Horrela, udal langileen ongizatea eta oreka helburu eskuragarri bihurtuko dira.

Horregatik guztiagatik, Errenteriako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Barneko lan-jazarpenaren aurkako protokoloa zabaltzea barneko langile guztiei eta estatutu- edo

### Protocolo de actuación para la prevención y solución de conflictos en materia de acoso interno y otros riesgos psicosociales en el Ayuntamiento de Errenteria.

#### **Introducción**

El Ayuntamiento de Errenteria considera que la salud y el bienestar del personal empleado municipal se entienden desde la concepción global de que los trabajadores y trabajadoras municipales deben ser protegidos y protegidas frente a todos los riesgos. Y muy especialmente frente a los riesgos psicosociales, entendidos éstos como aquellas actuaciones y conductas que pueden alterar su equilibrio psicológico y social.

Además de la salud, el acoso en cualquiera de sus modalidades, las conductas que generan estrés o cualquier otro ataque hacia la dignidad e integridad de la persona, vulnera los fundamentos de la convivencia y los derechos fundamentales de la ciudadanía y, por tanto, los valores esenciales en los que se fundamenta una cultura institucional que respete la diversidad de las personas y favorezca relaciones igualitarias.

Para evitar comportamientos que pudieran producir situaciones de acoso o estrés laboral se deben utilizar tres herramientas:

1. La prevención, desde el establecimiento de códigos de conducta comunes.
2. La aprobación de procedimientos de actuación consensuados ante el conflicto y la queja.
3. La reparación del daño causado a las víctimas y del entorno laboral.

Estos códigos y protocolos de actuación deben de ser conocidos por todo el personal empleado municipal, ya que ésta es la única forma de que sean efectivos.

El objeto de esta normativa es establecer valores y conductas comunes que permitan construir grupos de trabajo donde exista una comunicación frecuente y abierta, y prácticas para la resolución de conflictos. De esta manera, el bienestar y el equilibrio de las y los empleados municipales se convierten en un objetivo alcanzable.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Errenteria se compromete a:

- Difundir el Protocolo contra el acoso laboral interno a todo el personal interno y a cualquier



lan-harremanagatik hala eskatzen duen edozein pertsonari.

- Jazarpen-egoerak jasaten dituzten udal langileei babesa ematea eta kasu bakoitza banaka ikertzea.

- Langileei beharrezko informazioa eta prestakuntza ematea, laneko jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko jarraibideak ezagutaraztearren (protokolo honetan jasotako jazarpenaren modalitate guztietan)

- Jasotako kexa edo salaketa guztiak gardentasun eta konfidentzialtasun osoz izapidetzea.

- Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren biktimei bermatzea indarkeria-egoera horien ondorioz dituzten premiei erantzungo dien arreta jasotzeko eskubidea.

Nabarmendu behar da ez dela inolako errepresaliarik onartuko ikerketan laguntzen duten edo jazarpen-egoerak salatzea sustatzen duten pertsonen aurka.

#### **Lehenengo artikulua. Erabakiaren xedea.**

Araudi honen xedea bikoitza da:

1. Alde batetik, saihestu beharreko jokabideen kode bat zehaztea, laneko jazarpena (*mobbing*) eta/edo jazarpen sexista ekar dezaketelakoan, eta, horrela, prebentzio-neurri eraginkorrak ezartzea.

2. Beste alde batetik, arlo horretan egon daitezkeen kexak eta gatazkak konpontzeko jarduketa-protokolo adostu bat onestea, halakoak eraginkortasunez eta azkar ebazteko, eta udal langileei ahalik eta kalte gutxien eragiteko.

#### **Bigarren artikulua. Aplikazio-eremua**

Erabaki hau Errenteriako Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langile guztiei aplikatuko zaie, inolako bereizketarik egin gabe, ez harekiko duten loturagatik (karrerako funtzionarioak, bitarteko langileak, praktiketakoak, lan-kontratudun langile finkoak zein aldi baterakoak, behin-behinekoak, etab.), ez lotura horren iraupenagatik; baita arduradun politikoei ere.

Denbora-eremua mugagabea da.

#### **Hirugarren artikulua. Araudia**

1. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren

persona, que por su relación estatutaria o laboral, lo solicite.

- Dar apoyo a las personas empleadas municipales que se vean sometidas a situaciones de acoso, investigando individualmente cada caso.

- Facilitar la información y la formación necesaria al personal para dar a conocer las pautas a seguir con el objetivo de prevenir y actuar contra el acoso laboral (en todas las modalidades recogidas en este protocolo).

- Tramitar todas las quejas o denuncias recibidas con la mayor transparencia y confidencialidad.

- Garantizar a las víctimas de acoso sexual y de acoso por razón de sexo el derecho a una atención que responda a sus necesidades derivadas de dichas situaciones de violencia.

Cabe destacar que no se tolerará ningún tipo de represalias contra aquellas personas que colaboren con la investigación o que promuevan la denuncia de las situaciones de acoso.

#### **Artículo uno. Objeto del acuerdo.**

El objeto de la presente normativa es doble:

1. Por una parte, determinar un código de conductas que deben ser evitadas, porque pueden ser consideradas como causantes de acoso laboral (*mobbing*) y/o acoso sexista, estableciendo así medidas efectivas de prevención.

2. Y, por otra parte, aprobar un protocolo de actuación consensuado para solucionar las quejas y conflictos que pudieran existir en esta materia, de manera que se resuelvan con eficacia y rapidez, minimizándose los daños hacia las personas empleadas municipales.

#### **Artículo dos. Ámbito de aplicación.**

El presente acuerdo se aplicará tanto a toda la plantilla del Ayuntamiento de Errenteria y de sus organismos autónomos, sin ninguna distinción ni por su forma de vinculación al mismo (personal funcionario de carrera, personal interino, en prácticas, laborales fijos o temporales, eventuales, etc.) ni por la duración de dicha vinculación; como a los y las responsables políticos.

El ámbito temporal es indefinido.

#### **Artículo tres. Normativa**

1. El Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre por el que aprueba el Texto Refundido de la



30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua (EPOETB).

2. Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

3. 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarakoa.

4. Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

5. Berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua.

6. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa

### **Laugarren artikulua. Definizioak**

1. **Barne-indarkeria:** laneko barne-indarkeriatzat hartzen dira, eraso fisikoez gain, hitzeko, idatzizko eta/edo keinu bidezko jokabideak, hala nola begirunea galtzea, norbait baztertzea, gaizki tratatzea, umiliatzea, beldurtzea, iraintzea, mehatxatzea eta jazartzea.

Era berean, barne-indarkeriatzat hartuko dira, besteak beste, honako jokabide hauek: taldearekiko isolamendua eragitea, ospe profesionala eta/edo pertsonala zikintzea zuzenean edo hirugarrenen bidez (adibidez, erabiltzaileen bidez) edo eraso egitea, sexualki nahiz sexuan oinarrituta.

2. **Gatazka:** egoera horretan, interes desberdinak dituzten bi pertsona edo gehiago elkarren aurka jartzen dira, edo elkarren aurkako ekintzak egiten dituzte, aurkariari kalte egiteko edo hura desagerrarazteko. Gatazka egongo da, baita konfrontazio hori ahozkoa denean ere. Sarritan muturrekoa denez, gatazkak arazoak sortzen dizkie, bai zuzenean tartean daudenei, bai hirugarrenei ere.

3. **Laneko jazarpenera edo mobbinga:** laneko jazarpenera psikologiko edo mobbing gisa hartzen da botere-posizio batetik (ez nahitaez hierarkikoa) pertsona batek edo gehiagok behin eta berriz eta denbora luzez indarkeria psikologikoko jokabideak izatea pertsona bat edo gehiagoren aurka. Hau da, denboran irauten duen eta nagusi batek, lankide batek edo lankide-talde batek enplegatutako bati eragiten dion edozein jokabide, beldurra, larritasuna eta motibazioa galtzea eragiten duena.

Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP).

2. Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales.

3. La Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

4. La Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, de igualdad entre hombres y mujeres.

5. Real Decreto 901/2020, de 13 de octubre, por el que se regulan los planes de igualdad y su registro.

6. Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, de garantía integral de la libertad sexual.

### **Artículo cuatro. Definiciones**

1. **Violencia interna:** se entiende como violencia interna en el trabajo, además de las agresiones físicas, los comportamientos verbales, escritos y/o gestuales que faltan el respeto, ignoran, maltratan, humillan, intimidan, insultan, amenazan y acosan.

Asimismo, se considerará violencia interna las conductas dirigidas a producir el aislamiento social, desacreditar de forma directa o indirecta (por ejemplo, a través de las personas usuarias) la reputación profesional y/o personal o agredir sexualmente y/o por razones de sexo.

2. **Conflicto:** situación en la cual dos o más personas con intereses diferentes entran en confrontación, oposición o emprenden acciones mutuamente antagonistas, con el objetivo de dañar o eliminar a la parte rival. Existirá un conflicto incluso cuando tal confrontación sea verbal. Por su condición a menudo extrema, el conflicto genera problemas, tanto a los directamente involucrados como a terceras personas.

3. **Acoso laboral o "mobbing":** se entiende como acoso laboral o mobbing, la exposición a conductas de violencia psicológica dirigidas de forma reiterada y prolongada en el tiempo, hacia una o más personas por parte de otra/s que actúan frente aquella/s desde una posición de poder (no necesariamente jerárquica). Es decir, cualquier conducta que persista en el tiempo y que se ejerza sobre un empleado o empleada por parte de un/a superior o un/a compañero/a o grupo de compañeros/as, que tienden a provocar miedo, angustia y desmotivación



Halako jokabideekiko esposizioa estatutu- edo lan-harreman baten esparruan gertatzen da, eta arrisku handia dakar osasunerako, laneko baja jarraituak eta luzeak ekar baititzake. Egoera bat Laneko Jazarpen egoeratzat hartzeko irizpideak daude: baliatutako indarkeriak *sistematikoa, errepikaria eta luzarokoa izan behar du*.

Izaera sistematikoak adierazten du elkarren artean lotura duten jokabide etsaien multzo batek osatutako prozesu jarraitua dela. Jokabide horiek ez diote soilik lan-harremanaren alderdi partzial bati eragiten; aitzitik, harremanaren zenbait esparrutan banatzen dira, nahiko era homogean.

Errepikaria izateko betekizuna behin eta berriz gertatzeari dagokio, eta erabilitako irizpidea da jasandako indarkeria-jokabideak, gutxi gorabehera, astean behin gertatzea gutxienez.

Jokabide horiek luzaroan jasatea eskatzeak egoeraren iraupenarekin du zerikusia, eta ikerketa-azterlanetan planteatzen da iraupena gutxienez sei edo hamabi hilabetekoa izatea.

Mobbingaren edo **laneko jazarpenaren hiru kategoria** daude:

- **Mobbing horizontala:** berdinaren artean gertatzen dena da; ustezko biktimaren lankideak dira jazarpenean parte hartzen dutenak.
- **Goranzko mobbinga:** menpekoen talde batek elkar hartzen du goragoko bati jazartzeko. Oro har, nagusiak betetzen duen lanpostua beste langile batek eskuratu nahi izan zuenean gertatzen da.
- **Beheranzko mobbinga:** hierarkian goragoko kargu bat duen pertsona bat da, menpeko langile bati presioak, tratu txarrak eta, oro har, jazarpena egiten dizkiona.

Laneko jazarpena edo mobbinga denborarekin eboluzionatzen duen egoera da, eta, gehienetan, garrantzi gutxiko gertaeretan izaten du jatorria, baina azkenean ustezko biktima lanetik kanporatzea ekar dezakete.

Dicha exposición se da en el marco de una relación estatutaria o laboral y supone un riesgo importante para la salud, pudiendo conllevar bajas laborales continuadas y prolongadas. Existen criterios para que una situación sea considerada como Acoso Laboral: la violencia ejercida tiene que ser *sistemática, recurrente y prolongada*.

El carácter sistemático indica que es un proceso continuado de un conjunto de conductas hostiles, relacionadas entre ellas, que no afectan sólo a un aspecto parcial de la relación laboral sino que se reparten bastante homogéneamente entre distintos ámbitos de la relación.

El requisito que sea recurrente hace referencia a la reiteración y el criterio utilizado es que el número de conductas de violencia padecidas sea, a nivel orientativo, al menos, de una vez por semana.

La exigencia de una exposición prolongada hace referencia a la duración de la misma y en los estudios de investigación se plantea que sea de, al menos, seis meses o doce meses.

Existen **tres categorías de acoso laboral** o “*mobbing*”:

- **Mobbing horizontal:** es aquel que se produce entre iguales; son los/as propios/as compañeros/as de la presunta víctima quienes participan en su acoso.
- **Mobbing ascendente:** es aquel en el cual un grupo de subalternos/as se alían para acosar a un/a superior. Ocurre por lo general cuando el puesto ocupado por el/la jefe/a había sido aspirado por otra de las personas trabajadoras.
- **Mobbing descendente:** es aquel en que es una persona con un cargo jerárquicamente superior la que somete a presiones, maltratos y hostigamiento en general a un/a empleado/a subalterno/a

El acoso laboral o “*mobbing*” es una situación que evoluciona con el tiempo y que en la mayoría de las ocasiones tiene su origen en acontecimientos de poca importancia, pero que pueden acabar con la presunta víctima fuera de la vida laboral.



**4. Sexu-indarkeria:** Sexu-indarkeriatzat hartzen dira edozein eremu publiko edo pribatutan sexu-bizitzaren garapen askea baldintzatzen duten edo baimendu gabeko sexu-izaerako egintzak, sexu-erasoa, sexu-jazarpena eta besteren prostituzioaren esplotazioa barne, bai eta Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren II. liburuko VIII. tituluaren aurreikusitako gainerako delitu guztiak ere.

**5. Jazarpen sexista:** emakumeenganako aurreiritzietan oinarritutako portaerak, bai eta femenotasunari atxiki ohi zaizkion jokabide, sinbolo, definizio, hitz edo rol ororekiko aurreiritzietan oinarritutakoak ere. Etsaitasunez edo onberatasunez ager daiteke (emakumeak gizonek zaindu eta babestu beharreko ama, emazte eta objektu erromantikotzat hartzen direnean). Hitzik gabeko edo hitzezko adierazpenak dira, jokabide fisikoak, harreman-moduak, eta jazarleak egiten ditu, hartzailerearen elkarrekikotasunik, baimenik edo eskaerarik gabe. Jokabide horiek lan-baldintzetako bat bilakatzen direnean, edo lan-ingurune etsai, larderiako eta umiliagarria sortzen dutenean, jazarpen sexistaz ari gara. Jazarpen sexistak sexu-izaera duenean, sexu-jazarpena ere deituko zaio. Sarritan, nolako jazarpen sexistaz ari garen zehazteko, sexuan oinarritutako laneko jazarpena eta laneko sexu-jazarpena bereizten dira..

**6. Sexu-jazarpena:** Sexu kutsuko edozein jokabide hitzezko, hitzik gabeko edo fisiko (baita behin eta berriz edo sistematikoki gertatu ez bada ere), pertsona bati berak nahi gabe zuzendua, horren helburua edo ondorioa bada pertsona horren duintasunaren kontra jotzea, eta, bereziki, giro beldur-eragilea, etsaia, apalesgarria, umiliagarria, iraingarria edo gogaikarria sortzen bada.

**7. Sexuan oinarritutako jazarpena:** sexuan oinarritutako laneko jazarpenentzat hartuko da pertsona bati, berak nahi gabe eta bere sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide zuzentzea, lan-eremuan edo lan-harremanen kariatz, horren helburua edo ondorioa bada pertsona horren duintasunaren kontra egitea edo giro beldur-eragilea, etsaia, apalesgarria, umiliagarria, edo iraingarria sortzea. Jokabide hori sexu kutsukoa bada sexu-jazarpenentzat hartuko da.

**4. Violencia sexual:** se consideran violencias sexuales los actos de naturaleza sexual no consentidos o que condicionan el libre desarrollo de la vida sexual en cualquier ámbito público o privado, lo que incluye la agresión sexual, el acoso sexual y la explotación de la prostitución ajena, así como todos los demás delitos previstos en el Título VIII del Libro II de la Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal.

**5. Acoso sexista:** Comportamientos basados en los prejuicios hacia las mujeres, así como hacia todas las conductas, símbolos, definiciones, palabras o roles identificados y/o relacionados con lo femenino. Puede manifestarse de una forma hostil o benevolente (considerando a las mujeres como esposas, madres y objetos románticos que necesitan de los hombres para ser cuidadas y protegidas). Son expresiones no verbales, verbales, conductas físicas, formas relacionales que quien acosa ejerce sin la reciprocidad, consentimiento o solicitud de la persona a quienes van dirigidas. Cuando estos comportamientos se convierten en una de las condiciones del trabajo, o crean un entorno de trabajo hostil, intimidatorio y humillante estamos hablando de acoso sexista. Cuando el acoso sexista sea de índole sexual también se lo denominará como acoso sexual. Frecuentemente para matizar a qué forma de acoso sexista se hace referencia se suele utilizar acoso por razón de sexo en el trabajo y acoso sexual en el trabajo.

**6. Acoso sexual:** cualquier comportamiento verbal, no verbal o físico (aunque no se haya producido de manera reiterada o sistemática), no deseado, de índole sexual, que tenga como objeto o produzca el efecto de atentar contra la dignidad de la persona, en particular, cuando se crea un entorno intimidatorio, hostil, degradante, humillante, ofensivo o molesto.

**7. Acoso por razón de sexo:** se considera acoso por razón de sexo en el trabajo cualquier comportamiento verbal, no verbal o físico no deseado, que se produzca en el ámbito o con ocasión de las relaciones de trabajo, dirigido contra una persona por razón de su sexo y con el propósito o el efecto de atentar contra la dignidad de una persona o de crear un entorno intimidatorio, hostil, degradante, humillante u ofensivo. Cuando dicho comportamiento sea de



Eragile nagusiak genero-estereotipoak izan ohi dira, eta, maiz, sexu bateko pertsonak mespretxatzea du helburu, sexu horretakoak izate hutsagatik, haien gaitasunak, konpetentzia teknikoak eta trebetasunak gutxietsiz.

**8. Sexu-orientazioan edo genero-identitatean eta -adierazpenean oinarritutako jazarpena:** pertsona baten duintasunari erasotzeko helburua edo ondorioa duten portaerak, eta lanean giro beldur-eragilea, apalesgarria edo iraingarria sortzekoa, haren sexu-orientazioa edo genero-identitatea eta -adierazpena dela eta (ez dituelako erreproduzitzen normatibotzat hartzen diren arauak), hala nola lesbofobia, homofobia, bifobia, transfobia, eta beste edozein aurreiritzi sexugeneriko.

**9. Bereizkeriazko jazarpena:** pertsona baten gogoaren kontrako jokabidea, haren arraza- edo etnia-jatorriarekin, erlijioarekin edo sinesmenekin, desgaitasunarekin edo adinarekin lotutakoa, helburu edo ondorio duena pertsona horren duintasunaren aurka egitea eta giro beldur-eragilea, umiliagarria edo iraingarria sortzea.

#### ***Bosgarren artikulua. Udal langileen eskubideak eta bermeak***

1. Errenteriako Udaleko langile guztiek dute tratu adeitsua, errespetuzkoa eta duina jasotzeko eskubidea. Ezin da inolako bereizkeriarik onartu sexua, arraza, egoera politikoa, sindikala, ideologia, erlijioa, egoera soziala, pertsonala, fisikoa, laborala, sexu-orientazioa, genero-identitatea eta -adierazpena dela eta, ezta bestelakorik ere.

2. Udal enplegatu guztiek dute eskubidea beren osotasun fisikoa eta morala babestua izan dadin beren eginkizunak betetzean; horregatik, alderdi guztiek konpromisoa hartzen dute lan-ingurune osasungarria bermatzeko, eta langileen oreka psikologikorako kaltegarriak izan daitezkeen, estresa sorraraz dezaketan edo laneko jazarpenaren susmopean egon daitezkeen jokabide guztiak ikertzeko.

3. Erakunde honen barruan egindako laneko jazarpena, edozein modalitatetan, izaera psikosozialeko lan-arriskutzat joko da, eta, ondorioz, Administrazio honek barne-prozedura bat jarriko du abian, langileen arlo horretako kexak eta gatazkak kudeatzeko.

índole sexual se considera acoso sexual.

Tiene como causa los estereotipos de género y, habitualmente, tienen por objeto despreciar a las personas de un sexo por la mera pertenencia al mismo, minusvalorar sus capacidades, sus competencias técnicas y destrezas.

**8. Acoso por orientación sexual o por identidad y expresión de género:** aquellos comportamientos que tengan el propósito o el efecto de atentar contra la dignidad y crear un entorno laboral intimidatorio, degradante u ofensivo dirigidos contra una persona por su orientación sexual, por su identidad y expresión de género (por no reproducir las normas entendidas como normativas), tales como la lesbofobia, la homofobia, la bifobia, la transfobia y cualquier otro tipo de prejuicio sexogenérico.

**9. Acoso discriminatorio:** conducta no deseada relacionada con el origen racial o étnico, la religión o las convicciones, la discapacidad o la edad de una persona, que tenga como objetivo o consecuencia atentar contra su dignidad y crear un ambiente intimidatorio, humillante u ofensivo.

#### ***Artículo cinco. Derechos y garantías de los empleados y las empleadas municipales.***

1. Todos los empleados y empleadas del Ayuntamiento de Errenteria tienen derecho a recibir un trato cortés, respetuoso y digno. Sin que sea tolerable ningún tipo de discriminación en relación con el sexo, raza, condición política, sindical, ideología, religión, condición social, personal, física, laboral, orientación sexual, identidad y expresión de género o cualquier otra.

2. Todos los empleados y empleadas municipales tienen derecho a que su integridad física y moral sea protegida en el desempeño de sus funciones, por lo cual todas las partes se comprometen a garantizar un entorno laboral saludable, donde sean investigadas todas las conductas que puedan resultar dañinas para el equilibrio psicológico del personal, que generen estrés o puedan ser sospechosas de acoso laboral.

3. El acoso laboral, en cualquiera de sus modalidades, que se realice dentro de esta organización se considerará un riesgo laboral de carácter psicosocial, y en consecuencia esta Administración pondrá en marcha un procedimiento interno que gestione las quejas y conflictos del personal en esta materia.



Prozedura hori bateragarria da jazarpena ustez jasan duen pertsonak kexaren arduradunaren aurka egin dezakeen edozein akzio judizialekin (zibila edo penala).

Legezko akzioei ekinez gero, Udala akusazio partikular gisa pertsonatu ahal izango da, baina horrek ez du eraginik izango lan-ingurunean har daitezkeen diziplina-neurrietan.

4. Prozedura horiei buruzko informazio guztia erabiliko da inplikaturako pertsona guztien intimitaterako eskubidea babesteko moduan. Hau da, protokolo honen prozeduran parte hartzen duten pertsonen anonimotasuna gordeko da.

Giza Baliabideen departamentuak laguntza eta babes osoa emango du, ahal denean, kexak ohiko bidetik konpondu ahal izateko.

5. Ebazteko ohiko prozedurak zein ezohikoak honako printzipio gidari hauek dituzte: konfidentziasuna bermatzea, inplikaturako pertsona guztientzako bermeak errespetatzea, prozesuaren inpartzialtasuna, justizia eta prozesuan inplikaturako langileen adiskidetzeta. Pertsona kaltetuaren sinesgarritasunetik abiatuta beti.

6. Udalak gai horietan egiazko kexak aurkezteko eskubidea bermatzen die udal langile guztiei, larderiarik, tratu bidegaberik, diskriminatzailek edo kaltegarriak jasateko beldurrik gabe, eta inola ere ez errepresaliarik.

7. Era berean, udal langile guztien errugabetasun-presuntziorako eskubidea bermatzen da.

### **Seigarren artikulua. Protokoloaren prebentzio-eta sentsibilizazio-neurriak.**

#### 1. Laneko jazarpeneko protokoloaren berri ematea udal langileei

Errenteriako Udaleko langileak lan- eta sexu-jazarpenarekin lotutako arazoez kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko hartu beharreko lehen neurria protokolo honen berri ematea da.

#### 2. Laneko jazarpenari buruzko informazioa eta prestakuntza ematea udal langileei:

Lantokiko jazarpenaren eta indarkeriaren arazoari buruz sentsibilizatzeko eta informatzeko bidea izango da prestakuntza.

Este procedimiento es compatible con cualquier acción judicial (civil o penal) que la persona presuntamente acosada pueda ejercer contra el/la responsable de la queja.

En caso de presentarse acciones legales, el Ayuntamiento podrá personarse como acusación particular, sin que esto afecte a las acciones disciplinarias que puedan adoptarse en el entorno laboral.

4. Toda información relativa a estos procedimientos se manejará de manera que se proteja el derecho a la intimidad de todas las personas implicadas. Es decir, se mantendrá el anonimato de las personas que participen en el procedimiento de este protocolo.

Se facilitará desde Recursos Humanos toda la asistencia y apoyo para asegurarse que, cuando sea posible, una queja pueda solucionarse por la vía ordinaria.

5. Tanto el procedimiento de resolución ordinario como el extraordinario, tienen como principios rectores: asegurar la confidencialidad, respetar las garantías para todas las personas implicadas, la imparcialidad en el proceso, la justicia y la conciliación del personal laboral implicado en el proceso. Partiendo siempre de la credibilidad de la persona afectada.

6. El Ayuntamiento garantiza a todos los empleados y las empleadas municipales el derecho a plantear quejas veraces en estas materias sin temor a ser objeto de intimidación, trato injusto, discriminatorio o desfavorable, ni en ningún caso objeto de represalias.

7. Asimismo, se garantiza el derecho a la presunción de inocencia de todos los empleados y empleadas municipales.

### **Artículo seis. Medidas de prevención y sensibilización del protocolo.**

#### 1. Comunicación del Protocolo de acoso laboral a las personas empleadas municipales.

La primera medida a adoptar para concienciar y sensibilizar a las personas empleadas del Ayuntamiento de Errenteria de la problemática asociada con el acoso laboral y sexual, es informar de la existencia de este Protocolo.

#### 2. Información y formación en materia de acoso laboral a las personas empleadas municipales:

La formación será una vía de sensibilización e información de la problemática del acoso y violencia en el lugar de trabajo.



Laneko barne-indarkeria prebenitzeko, Errenteriako Udalak arlo horretako berariazko prestakuntza-programak ezarriko ditu udal langile guztientzat.

**Zazpigarren artikulua. Arrisku psikosozialak sorrazten dituzten jokabide eta jarduerak.**

Jarraian, lan-ingurunean edozein motatako jazarpen-egoera eragin dezaketen jokabide batzuk aipatzen dira. Ez da zerrenda itxi bat, beste portaera mota batzuk ere jo ahal izango dira protokolo honen bidez prebenitu nahi diren ezinegonen eragiletzat.

Artikulu honetan jasotako jokabide guztiek sufrimendua eragiten diete udal langileei, eta saihestu egin behar dira; izan ere, halakorik gertatuz gero, lesioak eragin diezazkiekete langileei, eta diziplina-zehapena ezarriko zaie.

Era berean, hirugarren artikuluan adierazi den bezala, arrisku psikosoziala sorrazten du diskriminatzailetzat, iraingarritzat, umiliagarritzat, larderiazkoztat edo indarkeriazkoztat har daitekeen edozein jokabide, ekintza, adierazpen edo eskabidek, edo bizitza pribatuan bidegabe sartzeak.

1. **Laneko jazarpena edo mobbinga** honelako bidez ager daiteke:

- Pertsona bat jardun profesionaletik baztertzeko edo isolatzeko neurriak.
- Errendimendu pertsonalaren edo profesionalaren aurkako eraso iraunkorrak, negatiboak eta justifikaziorik gabeak.
- Pertsonen ospe profesionala edo pertsonala manipulatzeko zurrumurruaren, irainaren eta barregarri uztearen bidez.
- Agintekeriaz jokatzeko, enplegatu baten etengabeko gutxiespenaren bidez, lortu ezin diren helburuak ezarri edo ezinezko zereginak esleitu.
- Langile bat behin eta berriz iraintzea edo gutxiestea.
- Langile baten lanari edo bizitza pribatuari buruzko zurrumurru faltsuak zabaltzea.
- Beste pertsona batzuk manipulatzeko udal langilearen aurkakoo jazarpenean parte har dezaten.

2. **Sexu-jazarpena** nahi ez den sexu-izaerako edozein jokabide da, lantokian edo lanarekin lotuta. Azken helburua pertsona batek beste bat mendean

Con el fin de prevenir la violencia interna en el trabajo, el Ayuntamiento de Errenteria establecerá programas de formación específica en esta materia para todo el personal trabajador municipal.

**Artículo siete. Conductas y actuaciones que generan riesgos psicosociales.**

A continuación se nombran algunas de las conductas que pueden generar una situación de acoso de cualquier tipo en el entorno laboral. No es una lista cerrada, otro tipo de comportamientos también podrán ser considerados como causantes de los malestares que se intentan prevenir con este protocolo.

Todas las conductas incluidas en este artículo se consideran causantes de sufrimiento para los y las empleados/as municipales y deben ser evitadas, ya que de producirse pueden ocasionar lesiones al personal y serán objeto de sanción disciplinaria.

Asimismo, como se ha manifestado en el artículo tres, genera riesgo psicosocial cualquier conducta, acto, declaración o solicitud que pueda considerarse discriminatorio, ofensivo, humillante, intimidatorio o violento, o bien una intrusión en la vida privada.

1. El **acoso laboral o "mobbing"** puede manifestarse a través de:

- Medidas destinadas a excluir o aislar de la actividad profesional a una persona.
- Ataques persistentes y negativos e injustificados al rendimiento personal o profesional.
- Manipulación de la reputación profesional o personal de personas a través del rumor, la denigración, y la ridiculización.
- El abuso de poder a través del menosprecio persistente de un empleado o empleada, la fijación de objetivos inalcanzables, o la asignación de tareas imposibles.
- Insultar o menospreciar repetidamente a un/a empleado/a.
- Difundir rumores falsos sobre su trabajo o vida privada.
- Manipular a otras personas para que participen en el acoso hacia la persona empleada municipal.

2. El **acoso sexual** supone cualquier conducta no deseada de carácter sexual, en el lugar de trabajo o en conexión con el trabajo. El objetivo



hartzeko boterea adieraztea da; normalean gizonezkoa da emakumea mendean hartzen duena, modu horretan betikotuz gure gizartean oraindik ere irauten duten zenbait botere-egitura. Sexu-jazarpena hainbat modutan ager daiteke, besteak beste:

- Nahi ez den kontaktu fisikoa nahita egitea.
- Gorputzari, itxurari edo bizimoduari buruz sexu-kutsuko iruzkin edo keinuak egitea behin eta berriz.
- Izaera iraingarria edo sexu-edukia duten telefono-deiak, gutunak edo posta elektronikoko mezua.
- Behin eta berriz egindako jazarpen iraingarria, sexu-osotasunaren edo sexu-ukigabetasunaren aurkakoa.
- Baimenik gabe, eduki sexuarekiko grafiko, bineta, marrazki, argazki edo Interneteko irudiak erakustea edo bistaratzea.
- Pertsona baten bizitza pribatuari buruzko galderak edo iradokizunak.
- Sexualki esplizituak diren txantxak edo proposamenak, sexu-osotasunari eta ukigabetasunari eragiten diotenak.
- Pertsona bati buruzko zurrumurruak zabaltzea, konnotazio sexuala dutenak edo haren bizitza sexualari buruzkoak.
- Pertsona baten eduki sexuarekiko bideoak edo irudiak zabaltzea
- Pertsona baten gorputzari tinko edo lizunkeriaz begiratzea behin eta berriz.

**3. Sexuan oinarritutako jazarpena** hierarkian goragokoek, maila bereko lankideek zein hierarkian beheago daudenek egin dezakete, eta genero-estereotipoak izan ohi dira eragile nagusiak; normalean, sexu jakin bateko pertsonak mespretxatzea du helburu, sexu horretakoak izate hutsagatik, beren gaitasunak, kompetentzia teknikoak eta trebetasunak gutxietsiz. Honako egintza hauen bidez ager daiteke, baldin eta xede duten pertsonaren sexuak eragindakoak badira:

- Pertsonaren jarduna modu iraingarrian epaitzea, bere ahaleginak eta trebetasunak ezkatzea.
- Pertsonaren erabakiak zalantzan jartzea eta balioa kentzea, dela modu publikoan, dela pribatuan.

final es manifestar el poder de una persona sobre otra, habitualmente del hombre sobre la mujer, perpetuando, de esta forma, las estructuras de poder que existen todavía en nuestra sociedad. El acoso sexual puede manifestarse de diversas formas en las que cabe incluir:

- El contacto físico deliberado y no deseado.
  - Comentarios o gestos repetidos de carácter sexual acerca del cuerpo, la apariencia, o el estilo de vida.
  - Llamadas telefónicas, cartas o mensajes de correo electrónico de carácter ofensivo o contenido sexual.
  - Persecución reiterada y ofensiva contra la integridad o indemnidad sexual.
  - La exposición o exhibición de gráficos, viñetas, dibujos, fotografías, o imágenes de Internet de contenido sexual, no consentidas.
  - Preguntas o insinuaciones acerca de la vida privada de una persona.
  - Bromas o proposiciones sexualmente explícitas que afecten a la integridad e indemnidad sexual.
  - Difundir rumores con connotación sexual o sobre la vida sexual de una persona.
  - Difundir videos o imágenes de contenido sexual de una persona.
  - Mirar con fijación o lascivamente el cuerpo de alguna persona de forma reiterada.
3. El **acoso por razones de sexo** pueden llevarla a cabo tanto superiores jerárquicos, como compañeros o compañeras o inferiores jerárquicos, tiene como causa los estereotipos de género y, habitualmente, tienen por objeto despreciar a las personas de un sexo por la mera pertenencia al mismo, minusvalorar sus capacidades, sus competencias técnicas y destrezas. Puede manifestarse como los siguientes actos, siempre que estos estén motivados por el sexo de la persona contra la que se dirigen:
- Juzgar el desempeño de la persona de manera ofensiva, ocultar sus esfuerzos y habilidades.
  - Poner en cuestión y desautorizar las decisiones de la persona, ya sea de manera pública o privada.



- Zereginik ez esleitzea edo zentzurik gabeak nahiz apalesgarriak diren zereginak esleitzea.
  - Jazarritako pertsonari laguntzen diotenei mehatxuak edo presioak egitea.
  - Pertsonaren kokapena aldatzea, kideengandik bereizita (isolamendua).
  - Pertsonaren presentziari ezikusi egitea.
  - Txantxak eta iruzkinak egitea tradizioz beste sexuko pertsonak egin izan dituzten lanak beren gain hartzen dituzten pertsonak buruz.
  - Tratu kaltegarria haurdunaldiagatik edo amatasunagatik.
4. Hona hemen **sexu-orientazioan edo genero-identitatean eta adierazpenean oinarritutako jazarpentzat** har daitezkeen jokabide batzuen adibideak:
- Egindako lana gutxiatea, sexu-orientazioa dela eta.
